

Emakume Abertzale Batza Bilbon

Gurutze Ezkurdia, Begoña Bilbao, Karmele Perez

UPV/EHU

gurutze.ezkurdia@ehu.eus, begona.bilbaobilbao@ehu.eus, karmele.perezu@ehu.eus

Abstract

EAB, basque women's patriot organisation, for the first time, was set up in Bilbao from 1921 to 1922. Even though the desire for women was lowered by the dictatorship of Primo de Rivera, but during the Republic, the leaders were organized for the second time, even stronger. The bloom of EAB is after this time. Although there were other movements in women in the Basque Country, the EAB made it possible to organize basque women and move from home to the world and political initiative, largely in Bilbao. In the article, we make historical reference of the aspects of EAB related to Bilbao, and we expose the work carried out by some women in the dissemination of the JEL doctrine, in education and in social assistance.

Laburpena

Emakume Abertzale Batza, lehen aldiz, Bilbon eratu zen 1921-1922an. Emakumeen nahiak Primo de Riveraren diktadurak apaldu bazituen ere, Errepublikara garaian, bigarrenaz antolatzen dira Batzako zuzendaritzakoak, are indartsuago. Ordukoa da EABren loraldia. Euskal Herrian emakumeen beste mugimendu batzuk ere izan ziren arren, EAB erakundeari esker, euskal emakumeek antolatzeko eta etxetik mundura eta ekimen politikora irteteko urrats nabarmena eman zuten, zati handi batean, Bilbon bertan. Artikuluan zertzelada historikoak erabiliz, Bilbori lotutako emakumeen ekarpena islatu dugu, JELe zabalkundean, hezkuntzan eta ongintza alorrean izan zuten protagonismoa bereziki nabarmenduz.

Keywords: emakume, abertzale, Euskal Herria

Gako hitzak: woman, patriot, Basque Country

1. Emakume Abertzale Batzaren (EAB) aurrekariak

XIX. eta XX. mendeetan antolatu ziren, lehenengoz, emakumeen parte-hartze sozial, ekonomiko eta politikoaren aldeko mugimendu aldarrikatzaileak. Eragileak hainbat ziren, eta lurralde bakoitzean ezaugarri batzuk zituen. Espainian 1877an Parlamentuan eztabaidatu zen, lehen aldiz, emakumeek botoa emateko eskubidea, eta, 1890ean ezarri zen Espainian gizonentzako boto-emate unibertsala. Era berean, 1907an sortu zen emakumeek botoa ematearen aldeko eta kontrako eztabaida, eta 1931n lortu zuten arte.

Berantiarra da emakumeen aldeko mugimenduen antolaketa Euskal Herrian. Karlisten eta liberalen arteko diskurtso kontrajarriak markatu zuen lehen abertzaletasunaren jarrera emakumeen gaineko eginbeharretan. Sabino Aranak berak, Libe izeneko lanean plazaratu zuen, argi eta garbi, emakumearen irudikapen abertzalea, zeinetan erlijio katolikoak eta gizonen asmo, irudikapen eta beldurrak sortzen duten ordenuaren isla aurkitzen baitugu. Haren arabera, Genesitik abiatuta, emakumea gizonaren irudikapena da, haren mende egon behar duena; amatasuna da bere

lehen ardura, eta etxeko eta familia mantentzeko lanak egin behar ditu.

XX. mendeko lehen hamarkadan hasi ziren emakumeak parte hartzen modu argian, esparru publikoan, astekarietan idatziz. Gure artean, 1906an, *Aberrin*, abertzaleen sektore erradikalaren ahotsa zen astekarian, dei egin zitzairen emakumei beren iritzia plazara zitzaten. Erantzuna Euskalduna astekarian agertu zen, sektore moderatuak emakumearen plazaratze hori salatu zuenean. Hiru dira aipagarri eztabaida hartan: lehena erantzuten Purificación Gorostiza, «Garbiñe», izan zen; baita María Barbier, «Mirentxu», arabarra ere. Biak goizik zendu ziren, 1909an eta 1908an, hain zuten. Modu kontserbadorean ulertu zuten emakumearen papera, nahiz eta emakumearen parte-hartzea defendatu, beti etxetik eta familiarik abiatzen ziren eta ez modu publikoan. Hirugarrenaren, Rakel Alda «Kataliñe»en aldarrikapenak, ordea, berritasuna eman zion diskurtsoari. Emakumeek prentsaren bidez egiten zuten bakarreko lana salatu, eta, etxeetatik irten eta gizonetzkoekin batera lankidetzan aritzea proposatzen zuten honek. Ikuspegi horrek ez zuen arrakastarik izan une hartan, aurrerakoiegia zelako. «Libe» ezizenez ezagutu zenak aurkitu zuen lehen elkarterako bidea. Honek Ropero Vasco elkartearen sortzea proposatu zuen,

jakinik zer nolako arazoak sortzen zituen horrelako ekintza batek (Ugalde, 1993: 60-61): "..., perseguía con voluntad firme un objetivo de participación de las mujeres en el nacionalismo, y era consciente de las dificultades que la empresa encerraba debido, no sólo a la oposición que esperaba encontrar en la mayoría de los varones nacionalistas, sino también a la falta de disposición de la mayoría de las mujeres para enfrentarse a aquellos y llevarla a cabo. Buena prueba de ello fue el escaso eco suscitado por la propuesta de Kataliñ. Por esta razón elaboro un plan con objetivos escalonados y propuso subir el primer escalón llevando a cabo la única alternativa que en aquellos momentos consideraba posible realizar. Con ello demostró una capacidad de análisis, una resolución y un espíritu práctico que no tenían nada que ver con la encantadora debilidad, la gentil inconsciencia y el mundo irracional..."

Horren ondorio izan zen *Ropero Vasco* zeritzona antolatzea. 1907an, geroago EABko zuzendaritzan egongo ziren emakume batzuen izenak agertzen dira: Carmen Errazti, Rakel Alda «Kataliñ», Jesusa Fresnedo, Purificación Gorostiza «Garbiñe», Paulina Arana Goiri, Catalina Aburto, Victorina de Larrinaga, besteen artean. 1910etik aurrera, oso emakume gutxi idatzi zuten, eta idatzi zutenek abertzaletasunari laguntzeko asmotan egin zuten, eta ez politikagintzan eragiteko, gizonen arloa baitzen hura. Hainbat artikulugilek zabalkunde ideologikoa bilatu zuten artikulua eta poesien bidez.

1919-1920an, Euzko Gaztedi elkartearen ekimenez, Emakumeen Elkarte baten egitasmoa sortu zen, baina bertan behera gelditu zen EAJPNVren barnean zeuden bi joeren arteko liskarrak zirela-eta. 1921ean, Euzko Gaztediko kide gehienak Euzko Alderdi Jeltzalearen barruan gelditu ziren, eta berreskuratu egin zen Emakumeen aldeko Elkartearen egitasmoa. Marokoko gerla-sasoia zen eta, bertaratzen ziren gazteen aldeko babesa bilatuz, Euzkotarren Aldezko Jel-Bazkuna edo Junta Nacionalista Vasca de Socorros zeritzona antolatu zen. Zuzendaritzan honako izen hauek agertzen ziren: Victorina de Larrinaga, Sofia de MacMahon, Teresa Azkue, Teresa Uralde, Maria Aranzadi, Carlota Olano, Catalina de la Sota, Juana Chalbaud, Juana Atxa, Antonia Zabalandikoetxea, Pilar Egiraun, Teresa Epalza, Carmen Ibarra, Asunción Urrutia, Carmen Errazti, Maria Beaskoetxea, Isabel Benedicto, Concha Smith, Concha Ballarin, Mercedes Bigera eta Elena de la Quintana y Fano.

2. EABren sorrera

1922ko martxoan, Ambrose V. Martin O'Daly irlandar independentziazalea Bilbon zen bisitan, Euzko Gaztedik antolatutako ekitaldian, eta, besteren artean, *Cumman na mBan* irlandar emakumeen mugimenduaren gorazarrea egin zuen. Bertan, emakume abertzaleen elkartasunaren beharrezana aldarrikatu zuen Paulina Ramosek. Urte bereko

maiatzaren 7an, Bilboko Euzko Gaztediko egoitzan, Batzorde Antolatzaile bati deitu zitzaion Emakume Abertzale Batza antolatzeko; araudia eta batzorde-zuzendaria aukeratu ziren: Carmen Errazti, Pilar Egiraun, Paulina Ramos, Maria Jesus Ibaseta, Jesusa Fresnedo, Alicia Aretxabaleta eta Petra Gandarias. Gehienak bilbotarrak ziren —Ibaseta lazkaotarra eta Fresnedo santurtziarra izan ezik—, Bilbo erdian bizi ziren; beraz, maila sozioekonomiko goikoan edo erdikoan kokatzen ziren, etxeko lanak egiteko neskame bat edo gehiago zituzten, eta, batez beste, 30 urte zituzten. Haietariko batzuk militante abertzaleak izan ziren, Carmen Errazti «Etxakin», idazle lanetan aritua, Jesusa Fresnedo eta Pilar Egiraun *Ropero Vasco*ko zuzendaritzakoak, eta Maria Jesus Ibaseta, Bilboko udal maistra eta Euzko Ikaskuntzako kidea. Denak ere familia abertzaleetako kideak ziren, eta kultur maila handikoak. Irakasle-ikasketak egindakoak ziren, Ibaseta, Gandarias, Ramos eta Aretxabaleta. Carmen Errazti euskara ikasi zuen. Beraz, kapital kultural handia zuten. Mercedes Ugalderen (1993: 138) esanetan: "Las dirigentes de EAB eran mujeres profundamente enraizadas en el sector aberriano del nacionalismo e íntimamente emparentadas con sus dirigentes, y tanto su edad (todas ellas jóvenes o en la plenitud de su vida) como su preparación cultural, y, sobre todo, la radicalidad de sus convicciones nacionalistas, les impulsaban a superar las dificultades que sus responsabilidades familiares, en algunos casos, y los prejuicios, ponían a su compromiso dirigente en una organización política".

Elkartearen helburuak *Aberri* astekarian aldarrikatzen dira: aberriaren aldeko propaganda egitea, giza laguntza, hezkuntza, elkartasun-zerbitzuak (Ugalde 1993: 133): "En cuanto a la beneficencia y la educación, eran dos actividades hacia las que se encauzaban, con aceptación social, los intentos de actuación pública y profesional de las mujeres con ciertas posibilidades económicas. El magisterio era el grado máximo de cualificación profesional al que una mujer de clase media podía aspirar en los años veinte, y la beneficencia era un medio de realización personal de las que pertenecían a familias de elevada posición social. Ambas eran bien aceptadas socialmente debido a su afinidad con su función maternal. No habría por tanto ninguna objeción, y sí muchas ventajas, a que EAB se dedicara a ambos cometidos".

Gainera, hezkuntza-arloaren inguruan hau gehitzen du Ugaldek (1993: 134): "En cuanto a la educación, Emakume Abertzale Batza se dirigía especialmente a las mujeres y a los niños. A las mujeres pretendía sobre todo ayudarles a perfeccionar su actividad doméstica, aunque también estaba dispuesta a ofrecerles algunas enseñanzas prácticas que les fueran útiles profesionalmente en caso de necesidad. Para los niños y las niñas proyectaba fundar escuelas y organizar clases de literatura, teatro, música, bailes, juegos y lengua vascos".

1923an, *Euzkadi* egunkariak antolatu zuen «Emakumea eta Aberria» atalean, beste batzuen artean, Tene Mujikaren idazkien ondorioz elkarte berria sortzeko ahaleginak egin ziren, *Emakume Azarri Bazkuna* zeritzona, EAJko joera komunionistaren aldekoek bultzatuta. Talde horrek ez zuen aurrekoaren arrakastarik izan eta, Mercedes Ugaldere (1993:178) esanetan, EABko emakumeek lortu zuten bai abertzaletasunean eragitea eta baita emakumeen onarpenean eragitea ere: “La EAB aberriana podía así compaginar el rupturismo de la salida de la mujer del hogar de sus afiliadas con la defensa del papel tradicional de la mujer. Las comunionistas tenían más dificultades para hacerlo. El nacionalismo comunionista no les ofrecía el empuje necesario para enfrentarse a esta contradicción. Los mismos dirigentes de Comución se habían inhibido y no habían impulsado como los aberrianos la creación de una organización de mujeres. En el caso de Emakume Abertzale Batza fue la Dictadura la que interrumpió su desarrollo. Emakume Azarri Bazkuna, en cambio, había muerto ya antes de que la Dictadura se proclamara”.

1923an Primo de Riveraren diktadura ezartzeak elkarte nazionalistak debekatzea ekarri zuen, emakumeena barne, eta moderatuak isilpean aritu ziren. 1931ko apirilaren 14an Errepublikan aldarrikatu zen Espainian. Urte bereko urriaren lehen onartu zen Espainiako Parlamentuan emakumeek botoa emateko eskubidea. Hori guztia gertatu zen EAJ-PNVko Comución eta Aberriko kideak elkartzen hasi zirenean, eta berrindartze lanetan murgilduta zeuden hainbat barne-antolaketa bultzatuz: mendigoxaleak, ELA-SOV, EAB eta abar. Bilboko Emakume Abertzale Batzaren berrantolaketa 1922-1923an izan zen, aurreko lantaldea bilduta antolatu baitziren. Aldaketa txiki batzuk gertatu ziren talde zuzendarian; Paulina Ramosek ardura txikiagoak hartu zituen, hiru seme-alaba baitzitu, eta Alicia Aretxabaletak hartu zuen idazkaritza. Pilar Egiraun eta Petra Gandarias moja joan zirenez, Concepción Gangoitik eta Sorne Unzuetak hartu zuten haien ordezkotza. Beste idazkariordetza bat sortu zen, eta Consuelo Gallastegik hartu zuen hura. Emakume talde haren ezaugarri soziologikoak antzekoak ziren: adin batezbestekoa 40 urte ingurukoa —1920ko hamarkadakoa baino handiago zen— askoz gehiago ziren ezkonduak, ezkongabeak baino; eta maistrak zirenak ere gehiago, Petra Gandarias, Concepción Gangoiti eta Sorne Unzueta. Bilboko EAB berrantolatzean, beste herrietako emakumeak ere berrantolatzen hasi ziren. Autoreek kopuru ezberdinak eman bazituzten ere, eztaba da milaka emakume antolatu zirela talde haren inguruan Euskal Herri osoan.

1931ko abenduan, Araudiaren aldaketaren ondorioz, zuzendaritza taldea aldatu egin zen. Ordura arteko Aberri joeraren aldeko kideen ordezkotza, joera moderatuagoaren ordezkariak sartu ziren: Carmen Erraztik, Paulina Ramosek, Alicia Aretxabaletak eta

Jesusa Fresnedok uko egin zioten karguari, eta, haien ordezkotza, Teresa Azkue, Juliana Mujika, Jesusa Zubizarreta eta Mercedes Viguera sartu ziren. Hurrengo urtean, 1932an, Concepción Gangoiti, Consuelo Gallastegi, Maria Jesus Ibaseta eta Sorne Unzueta irten ziren, eta, haien ordezkotza, Rakel Alda «Kataliñ», Rosario Olazabal, Dolores Rouse eta Ventura Kareaga sartu ziren. 1933an, Jesusa Yarritu eta Sofia Mac-Mahon sartu ziren. Horretara, Mercedes Ugaldere (1993: 313): “Al terminar el primer bienio republicano culminaba por tanto el proceso de desplazamiento del control de EAB de Bilbao del sector nacionalista radical, fundador de la organización, y quedaba ésta bajo el dominio de la tendencia política nacionalista moderada y posibilista, que tenía en sus manos también las riendas del PNV”.

1933ko hauteskundeetan ostean, eskuineko partidu politikoak nagusitu ziren Espainiako Parlamentuan, eta gero eta tentsio handiagoa bizi izan zen, batetik, eskuin muturraren igoera etengabeagatik, eta, bestetik, ezkerrekoen erradikalizazioagatik. Euskal Herrian, gainera, asmo abertzaleak burutu ezinik, jendearen nekea eta ezina plazaratu zen. EABren hazkundea eten egin zen 1933-1936 bitartean, nahiz eta elkarte berriren batzuk antolatu ziren. Emakume Abertzale Batzaren loraldia Espainiako II. Errepublikaren lehen urteetan gertatu zen, 1931-1933 bitartean. Ondoren, 1936an, Gerra Zibilak eten egin zituen ekintza guztiak.

3. EAB Bilbon

Emakume nazionalistek eskatzen dute —prentsan ere idatziz—, nazioaren eraikuntzan parte hartzea eta baita euskararen eta euskal kulturaren transmisioan protagonismo izatea. Esan liteke EABk bi helburu nagusi zituela; batetik, abertzaletasuna zabaltzea; bestetik, nazionalismoaren oinarriak indartzea eta hedatzea. Egitasmo asko burutu zituzten baina euren eragina lau esparrutan nabarmendu zen: JELaren zabalkundean, aberrigintzarekiko maitasunean, hezkuntzan eta ongintzan. Gune horiek ez ziren ekintza politikorako espazio isolatuak, euren helburuak lortzeko gune osagarri eta integratzaileak baizik. EAB, Bilbon sortu zenetik, 1922ko maiatzean eta birsortzen denean ere, 1931ko ekainean Bidebarrieta kalea, 14, 2-3 zuten egoitza, Bilboko Euzko Gazteriaren lokaletan. EAB sorreran Bilbon ehun bat afiliatu zeuden. Bigarren sorkuntzatik afiliatu kopurua Bilbon izugarri handitu zen. 1931-1935 epealdian (Ugalde, 1997:482) Bilbon lau talde nagusi zeuden: Abandokoa (Abando, Kastrejana, Larraskitu, Olabeaga, Zamakola eta Zorroza, 75, 77, 162, 54 eta 96 afiliatuekin, hurrenez hurren) Begoñakoa (Begoña eta Matiko, 246 eta 175 afiliatuekin), Bilboko (2.293 afiliatuekin), eta Deustukoa (Deusto eta Elorrieta, bien artean 305 afiliatuekin). Afiliatuen kopurua zela eta, 1932-37ra burutzen ziren ekintzen kopurua handituz joan zen eta Euzko Gazteriaren lana ez oztopatzeke, aldamenean zegoen Posta kalea, 14, 2. solairura pasatu zen Bilboko EAB. EABk egindako lana sekulakoa zela agertu dute

zenbait lan monografikoen (Larrañaga, 1978; Ugalde, 1993; Uruburu, 1997; Bilbao et al, 2012). Horregatik, guk oraingoan, Bilbon oihartzun berezia izan duten EABren ekarpenak nabarmendu nahi ditugu, hots, JELaren (Jaungoikoa eta Lagi Zarra) zabalkundean, hezkuntzan eta ongintzaren arlokoak.

3.1. EABren eragina JELaren zabalduean

Bilbotar emakume askoren protagonismo ekintzaile ikusiko dugu Bilboko EABn, zuzendaritzan zein beste ekimen batzuen antolaketan. EABn, maistra asko politikagintzan aritu ziren. Gehienak bizkaitarrak ziren, eta asko Bilboko Irakasle Eskolan ikasiak. 1902an zabaldu zen Bizkaiko Goi Mailako Maistren Eskola Bilbon, hurrengo urteetan EABko emakume askoren prestakuntza-eskola izan zena. Han ikasi zuten Koldobike Natxitubek, Polixene Trabuduak, Jesusa Ibasetak, Alicia Aretxabaletak, Petra Gandariasek, Consuelo Gallastegik, Rakel Aldak... Adibidez, Paulina Ramosek, 1910eko ekainean egin zuen sarrerako azterketa Bilboko Eskolan, eta 1913an sari bereziaz bukatu zuen; beranduago, 1928an Koldobike Natxitubek egin zuen, eta 1927ko ekainean, Polixenek.

Prestakuntza ona jasota irteten ziren, eta maistra askok lanpostua lortu zuten auzo-eskoletan, udal-eskoletan edo EABk propio sortuak zituen Euzko Ikasketan. Eskola Normaletako prestakuntza modernoa zen, oraintsu lortu den Gradu-mailaren parekoa, baina euskaltasuneko eskasa. Hori zela eta, Euzko Gaztediak zein Bizkaiko Aldundiak "Instituto Vizcaino" sortutako euskara katedran ibilitako ikasleak ziren. Katedra honetan gizonen R.M. Azkue irakasle zuten bitartean, emakumezkoek, «Kirikiño». Politikari abertzale bizkaitarrek etengabe aldarrikatzen zuten euskara irakastea maistren oinarrizko prestakuntzan, eta azkenik, lortu zuten. Bilboko Normalean 1918-1919an, 206 ikasle ofizial eta 31 ez-ofizial egon ziren matrikulaturik. Ordukoa da euskarazko katedra sortzea, ikasleentzat dohainik eta bolondresei esker. Hasiara batean, Manuel Ortuzar irakaslearen izenean jarri zen abian; geroago, Maria Nieves Gomeza eta Maria Dolores Naberan egon ziren irakasle, baina 1923ko Erret-dekretu batek debekatu zuen betiko. Datuak ikusirik, arrakastatsua zela ikusten da. Adibidez, 1920-1921 ikasturtean, ikasleen % 18 zegoen matrikulaturik; 1921-1922an, % 27, eta 1922-1923an % 64 (% 58, 4. mailan; % 57, 3. mailan; % 40, 2. mailan; eta % 96, 1. mailan). Notei begira, gutxiagirik eza nabarmentzen da: % 4 ez aurkeztua, % 20 oso ongi, % 35 bikain, eta % 41 gaituta. II. Errepublikaren garaian, Bilboko Eskola Normalean ez zen irakasten euskal gairik, eta maisu-maistra euskaldunak Euzko Ikasketzak antolatzen zituen Udako Ikastaroetara joaten ziren euskal gaietan hornitzeko, eta Ikastola Batzan lan egiteko beharrezkoa zen euskara agiria lortzeko. Bizkaian eta Gipuzkoan, EABren zuzendaritzetan zeuden emakume gehienak ere maistrak ziren. Nafarroan eta Araban ere berdintsu

gertatu zen. Emakume ikasiak ziren heinean, karguetan egoteaz gainera, herrietan eragile ere baziren, eta jakina da mitinlari eta propagandista lan handia bete zutela. J.A. Agirre, Gallastegi, Monzon, Manuel Irujo eta beste hainbat burukiderekin, mitinak ematen zituzten beti azpimarratuz emakumeak gizartean bete behar zuten lekua.

EABko zenbait emakumek sarri idazten zuten egunkarrietan euren pentsamenduaren aldarrikapena egiten. Emakumeek horiek euskal intelligentsian toki berezia izan dutela sakon aztertu da, Ana Urkizak (2012) emakumeen adimeneren nolakotasuna aztertu du, eta gaur egun hain ezagunak diren askotariko ahalmenak erabili zituztela azpimarratzen du. Adimen emozionala, interpersonala, soziala, kolektiboa, exekutiboa, politikoa, artistikoa, etikoa eta espirituala euren ekimen politikoa lortzeko nola gauzatu ziren azaltzen du. Iratxe Retolazak (2012), berriz, emakume idazleek literaturgintzan, antzerkigintzan zein prentsa-idazkietan egin zituzten ekarpenen izaera aztertu du, emakume horiek luma hartu baitzuten abertzaletasunaren imaginarioa zabaltzeko, baina irakaspen moralari lehentasuna emanaz.

EABko militanteen artean, bai zuzendaritzan zein politikaren esparru publikoan agertzen zirenen artean emakume jantziak zeuden, argiak eta hizlari gogotsuak, dohain bereziz jaiok batzuk. Herriz herri, batzokiz batzoki... saio kulturetan (koruak, emanaldi musikalak, hitzaldiak...) zein politikoetan parte hartzen zuten. Oso konprometiturik agertzen ziren alderdiak antolatzen zituen ekitaldi politiko zein ospakizunetan, jeltzaleek eta emakumeek aldarrikatzen zuten ideologiarekin bat eginik. EABko punta puntako militante askok antzezle ziren Bilboko Euzko Gazteriak bultzatutako Pizkundia eta Oldargi antzeztaldeetan. Hor adibidez, antzerkigintzan ibiliak ziren Paulina Ramos eta Alizia Aretxabaleta, azken hau Bilboko Sinfonikoaren bibolina zena.

EABko emakume asko Euzko Gazteriaren egoitzetan euskarazko klaseak ematen zituzten beste gizonenekin batera, baina euren esku gelditzen zen Gaztetxuen prestaketa. Jeltzaleen jaialdietarako edo ekintza politikoetako horniduraz arduratzen ziren emakumeak, jeltzaleekin batera. Gorulari eta poxpolinen ardura emakumezkoek zegoen; ezpata-dantzariena, berriz, gizonenak. Harietarako ekintza asko Euzko Gazteriarekin batera prestatzen zituzten emakumeek, hauen egoitzan euskarazko klaseak gain, saioak egiten ziren eta materialaren gordelekua baitzegoen.

II. Errepublikak 1931an onartu zen emakumearen boto eskubidea, eta, handik urte batera, 1932ko urtarrilaren 18an, EABko zuzendaritza aldatzen denetik aurrera emakumearen agerpena espazio publikoan areagotzen da. Hiru batzorde osatzen dira zuzendaritza berrian: propagandakoa, Sorne Unzuetaren ardurapean;

hauteskondekoa, Maria Jesus Ibasetaren ardurapean; eta, arte alorrekoa, Jesusa Zubizarretaren ardurakoa.


Sorne Unzuetak hizlariak eta mitinlariak prestatzeko ardura hartu zuen. Emakume batzuek ez zeukaten prestakuntza askorik, baina erraztasunez hitz egiteak eta abertzaletasuna bihotz-bihotzez erakusteko Eusko Alderdi Jeltzalearen propagandista bilakatu zituen. Hizlari baino mitinlari ziren batzokiz batzoki haien ekitaldi garrantzitsuetan adoretu eta suharki parte hartu zutenak. 1932an 180 hitzaldi eta mitin egin ziren 15 propagandistak parte hartuz. Ekimen honetan zazpi hizlarik multa jaso zuten (Larrañaga, 1978-I: 92). Sorneren ardurapean ere bazeuden gaztetxoak prestatuta, eta hauen euskara eta euskal kulturaren alorra.

Jesusa Zubizarretak arte arloko ekitaldiak (musika, antzerki, agerraldiak...) antolatzen zituen. 1932ko Aberri egunean, 200 bat gorulari mugitu zituen, eta manifestazioan parte hartu zuten abanderatuen antolaketaz arduratu zen. Bilboko kaletako balkoien hornidura berea ere bazen. Hasiera batean Bilboko egoitzan egiten zen lana eta antolaketa, gerotxoago Bizkaiko talde bakoitzera zabaldu zen. Lan egiteko prozedura bera edo antzekoa erabili zuten Hego Euskal Herriko beste lurraldeetako emakume taldeetan.

Maria Jesus Ibasetak hartu zuen hauteskondeen ardura, afiliatuak fitzak gaurkotzea eta botoen banaketaz antzemate ziren hauteskondeei begira. 1933an, Bilboko emakumeek botoa emateko hiru bozketatan parte hartzeko aukera izan zuten. Apirilaren 23an udal hauteskundeak egin ziren, azaroaren 5ean Autonomia Estatutuak bozkatzeko, eta 9an, berri, Korteetako diputatuak hautatzeko. Sekulako lana egin zuen Ibasetak, eta bereziki Bilboko taldeko emakumeek. Hiru emakume goraiatzeko dira Estatutuaren hauteskunde egunean egin zuten lanagatik: Teresa Azkue, Jesusa Zubizarreta eta Gamboa andrea (Ugalde, 1997: 418).

Milaka emakume hain ongi antolatzeko gaitasuna zuen elkarteak ulertzeko, lagungarria da EABko Bilboko antolaketa nolakoa zen ezagutzea (ikus, 1. Irudia). Zuzendaritzako kide bakoitzak bazuen Bilboko barruti baten ardura. Barruti bakoitza, sekziokoa edo arloka banatuta zegoen, eta sekzio bakoitzak bere sekzioko buruzagia zuen, zazpi emakumeren laguntzaz hornitzen zena. Haietariko emakume bati azpiburuzagi kargua ematen zitzaion. Sekzio bakoitza, bestalde, kaleka zegoen antolatua. Emakumeak antolatzeko orduan, kalez kaleko antolaketa hurbilena zen. Batetik, kaleko buruzagaia zegoen. Honek bazituen bere ardurapean hamar emakumez osatutako zenbait "amarreko". Hamarreko bakoitzak "amarpuru" edo arduradun bat

zuen, eta honi laguntzeko beharra izanez gero, amarreko "laguntzailea" zeritzona zegoen. Amarpuruaren zeregina honakoa zen: deialdiak egitea; zuzendaritzako erabakiak eta jarraibideak beste kideei ezagutaraztea; egin beharreko lanak azaltzea; militante berriak egitea, eta taldearen erregulazioa eramatea. Taldearen erregulazioa bere ardurapean gelditzen zen, berari bazegozkion taldekideen helbideak ezagutzea, eta afiliatu karnetak gaurkotuta edukitzea; taldekideen zereginen betekizun maila ezagutzea; taldekideen gogoko lana ezagutzea, eta zein batzordeñotan parte hartuko lukeen jakitea; taldekideen abileziak ezagutzea, eta zeregin berrietarako taldekiderik aproposena aurkitzea... EABri emakume sare antolaketa hau guztiz praktikoa egiten zitzaion: hurbila, arina, eta eraketaren



aldetik ikusita, kontrolagarria. Antolaketa honi esker, ulertzen da une batetik bestera emakume masa erraldoia mugiarazteko zegoen erraztasuna.

1. Irudia: Bilboko barrutien antolaketa

Aipagarria da 1932ko Aberri Egunaren ospakizunean EABko emakumeak Bilboko kaleetatik egin zuten manifestazioa (ikus, 2. Irudia), Albia lorategietako Sabino Aranaren etxean ikurrinaren bereindikazioaz bukatu zena. Bilbok ezagutu zuen agerraldi abertzale erraldoiena zen, milaka afiliatu manifestatu baitziren egun horretan, dantzari, txistulari, gorulari eta agintari jeltzaleek parte hartuz. Herrietako EABko elkarteek euren banderarekin eta guzti desfilatuta zuten. Agerraldian emakumeen lana eta antolaketa nabarmendu ziren agintari jeltzaleen artean eta garaiko egunkarietan datuak aldakorak izan arren, 50 emakume abanderatutak, eta 6.000 emakume inguru parte hartu zutela esaten da. Gutxiengo kopuru esanguratsua da, agerraldian 50.000 pertsona inguru egon baitziren (Ugalde, 1997:392).



2. Irudia: 1932ko Aberri eguna Bilboko Gran Vian (Arg. Sabino Arana Fundazioa)

Arrakastatsua eta akordatzekoa zen, besteak beste, Polixene Trabudua eta Haydée Agirre mitinlariak Larrinagako 1933ko urtarrilaren 11n, egun osoa espetxean eman ondoren, EABko afiliatuek eta gainontzeko lagunek kanpoaldean eman zieten ongietorria. Edo, handik gutxira, 1933an, hauen omenez Bilboko Euskalduna frontoian egin zen “Euskal emakumeari omenaldia”. Ekitaldi horretan, euskal emakumearen amatasuna goratzea nahi zen, amatasuna aberriarekin identifikatuz, hots, seme-alaben heziketa abertzalean zuten egin beharra gogoraraztea. Ekitaldian EABko 60 elkarte bildu ziren bakoitza bere ikurrinarekin, eta gorulariz inguraturik, EABko zuzendaritzako kideen aurrean Haydée Agirre, Teresa Zabala, Polixene Trabudua eta Julene Urzelai mitinlariak euren hitzekin entzulegoa oldartu zuten (ikus, 3. Irudia).



3. Irudia: Bilboko Euskalduna Frontoiko lau mitinlariak: ezkerretik hasita Haydée Agirre, Teresa Zabala, Polixene Trabudua eta Julene Urzelai. (Arg. Sabino Arana Fundazioa)

3.2. EABren eragina hezkuntzan

EABren eragina nabarmendu zen hezkuntzaren esparruan. Hezkuntza formaletik begiratuta aipagarria da Euzko Ikastola Batzaren sorrera; hezkuntza informaletik, berriz, Gaztettoen aisialdi saioak eta helduei bideratutako formazio ikastaroak.

3.2.1. Euzko Ikastola Batza

XX. mendearen hasieran hiru ikastola zeuden Bilbon. Lehen, Azkuek Jardines 12 kalean 1896-97 ikasturterako zabaldu zuen Ikastechea, 1899an desagertu zena. Bigarrena, Bilboko Euzko Gazteriak bultzatutako Plaza Berrikoa, 4, 4º solairuko Itziargo Ama (1908-1924), eta hirugarrena, egitasmo pribatu gisa, Abandoko auzokideek sortutako Arantzazuko Ama (1914-1920), Colon de Larreategiko 22ko behe solairuan kokatuta. Saiakera horiek solteak ziren. Horregatik, hezkuntza euskalduna eskaintzeko garaiko egitasmorik sendoena eta hedatsuen Euzko Ikastola Batzarena izan zen, Bilbon bertan zein Hego Euskal Herri mailan. Ahalegin handiarekin, II. Errepublikak hezkuntzarekiko zabalitzen zituen atak aprobetxatuz, eta oztopoak gaindituz, Euzko Ikastolaren eredia hedatzen hasi zen 1932tik 1936ra. Hezkuntza-sistema ofizialaren laikotasunari eta euskalduntasun ezari aurre eginez, EAJren hezkuntza-proiektu politikotzat hartu behar da. Hezkuntza-proiektu alternatiboa izan nahi zuen, ofizialki indarrean zegoenaren aurkakoa, hizkuntzaz, helburuz eta pedagogiaz. Proiektu horretan sekulako garrantzia eman zitzaion eskolaren eraketari, metodologiari, irakasleriaren prestakuntzari eta haurrek erabiliko zuten materialari. Horrela zabaldu ziren, 1932an, zortzi ikastola Bizkaian, eta bat Gipuzkoan. 1936rako, berriz, hamabost zeuden Bizkaian, eta Gipuzkoan bakar, Bergarako.

EABk zerikusi handia izan zuen Euzko Ikastola Batzaren sorreran. EABren helburuetariko bat euskal umeen eta emakumeen hezkuntzan sakontzea zela; gizartean ondo ikusia zegoen, alde batetik, amatasun funtzioak luzatzea zelako, eta, gainera, bestetik, eragile izan zitezkeelako bai erlijioaren ezagutzan eta bai euskaltasunean umeak hezteko. Horregatik, EABren egitekorik garrantzitsuen belaunaldi berrien hezkuntzaren transmisioa zenez, horretarako propio sortu zuen Euzko Ikastola Batza izenez ezagutzen den erakundea, EAJren beste erakunde batzuen laguntzaz. Ikuspuntu didaktikoaz begiratuta esan liteke Europa osoan indarra zuen «Eskola Berriak» berritasun pedagogikoak eta psikologikoak ekarri zituela gurera, metodologia desberdinak proposatu zituenean. «Eskola Berriak», eskola tradizionalaren planteamenduaren aurka eginez, ikaslea prozesuaren ardatz bihurtu nahi zuen, eta hortik datorkio «eskola aktibo» izena ere. Eskola hori Ingalaterran sortu eta Belgikan, Frantzian, Alemanian, Suitzan, eta Europako herri askotan zabaldu zen. Hala dira ezagunak euskal irakaskuntzaren

historian Maria Montessori, Adolphe Ferriere edo Ovide Decroly izenak eta ekarpenak.

1932ko otsailaren 4an harrotu ziren Batza sortzeko asmoak, eta 1932ko martxoaren 4an osatu zen behin betiko Euzko Ikastola Batza. Partaideak honako hauek ziren: Concepción Gangoiti de Uriarte eta Consuelo Gallastegi (EABren ordezkariak), Elias Gallastegi eta Felix Zubizarreta (Bilboko Euzko Gazteriaren ordezkariak), Ramon Leniz eta Manuel Egileor (Euzko Idazkaltza Barubako ordezkariak, eta Bizkai Buru Batzarrak izendatuak), eta Francisco Horn eta Jose Villalonga Batzaren babesle gisa. Karguak honela banatu ziren: presidentea, F. Horn; idazkaria, E. Gallastegi, eta diruzaina, F. Zubizarreta.

Euzko Ikastola Batzak ahal izan zituen egoitzetan sortu zituen bere ikastolak; askotan, Batzokian bertan edo handik hurbil. Bilbon bertan bi ikastola eredu zeuden. Batetik, Alde Zaharreko Belostikale 1 kaleko bi solairutan kokatuta zegoena, eta bestetik, Bilboko zabalgunean ikastola izateko espreski sortu zen Errotatueta izeneko. 1932-35 epealdian, Bizkaian 14 euzko ikastola sortu ziren (ikus, 4. Irudia).

1932	1933	1934	1935
Portugalete (1932-VI-6)	Ondarreta (1933-I-6)	Galdakao (1934-IV-16)	Durango (1935-I-15)
Sondika (1932-IX-14)	Barakaldo (1933-I-7)	San Salvador del Valle (1934-IV-18)	
Belostikale (1932-XI-14)	Bergara (1933-I-8)	Gernika (1934-V-27)	
Algortia (1932-XI-30)	Errotatueta (1933-I-15)		
	Elorrio (1933-II-1)		
	Zornolza (1933-IX-17)		

4. Irudia: 1932-1935 epealdian Bizkaian sortutako hamalau euzko ikastolak

Antolaketa begira, lehen mailan eta hainbat ikastolaren koordinazioa bermatzeko, Euzko Ikastola Batza zegoen, eta horren menpe, herri bakoitzeko Ikastola Batza. Ardatz ideologiko komuna zegoen, honako bi alor hauen inguruan: batetik, eskola elebiduna, naziotasunaren eta kristautasunaren oinarri pean; bestetik, eredu pedagogikoa, non, irakasleen prestakuntza pedagogikoaz gain, ezinbestekoa baitzen euskal kulturari buruzko prestakuntza. Eskola bakoitzaren esku gelditzen ziren gainerako arloak, hots, egunerokoaren antolaketa eta baliabide ekonomikoen kudeaketa. Bilboko ikastoletan ez zegoen Batzorde administratiborik, besteetan ez bezala. Ikastola bi horien kasuan, administrazioa "Emakume Batzordeño"ren esku gelditzen zen, eta honek eguneroko zeregin administratibotik aparte eginkizunik garrantzitsuena ikastolaren aldeko diru laguntza batzea zen. Informatik (1933: 32) jasotzen ditugu bi ikastoletako administratzaileen izenak:

Belostikaleko	Errotatueta
---------------	-------------

Batzordeñoa	Batzordeñoa
Sira Meabe de Gerrikaetxebarria	Piedad Bengoetxea, Bigeraren alarguna
Mercedes Longa de Galdiz	Rosa Ituriotz de Senosian
Maria Gisasola de Angulo	Sofia Mac-Mahon de la Sota
Azkarreta andrea	Concepción Isusi de Ibañez
Mercedes Bigera	Isabel Eguren de R. de Billatxika
Adela Landaburu	Egurenen alarguna

1. Taula: Bilboko bi ikastoletako administratzaileak

1. Taulan ikusten da, Belostikalaren kasuan, Mercedes Bigera, maistra ikasketak zituen, 1931ko abendutik 1935eko maiatzera EABko zuzendaritzako kidea zela.

Belostikaleko Arana jauregian, ikastolak bi solairu okupatzen zituen, hilerok alokatuak. Egoitza berean ikastola eta ikastolaren Gobernu Batzordearen egoitza zegoen, Euzko Ikastola Batzako Luis Agirre aholkulari pedagogikoaren bulegoa, eta Euzko Ikastola Batzako artxiiboak gordetzeko tokia.




5. Irudia: Arkupearen gainean, Belostikaleko ikastolaren egoitza (Arg: Informe 1933)

Ikastolak bost gela zituen, bi haur txikientzat, beste bi neskentzat eta beste bat mutikoentzat. Jolasteko tokia eta komunak handiak eta nahikoak zituen. 1935-36 ikasturtean 173 ikasle matrikulatuta zeuden bost andereñoen ardurapean: Angela Arriaga, Mercedes Herran (zuzendaria), Margarita Murgizu, Maria Subiñas eta Encarnacion Ugalde.



6. Irudia: Belostikale ikastolako haurrak (Arg: Informe 1933).


Belostikale ikastolako matrikula handituz joan zen heinean, Bilboko euskaltzale abertzaleek beste ikastola bat sortu behar zela ikusten zuten. Bilboko zabalguneko Jesusen Bihotzetik hurbil, parkearen parean, Errotaxueta ikastola eraiki zen. Luis Vallejo arkitektoari enkarguz agindua, eskola deseraikitze moduan sortu zen. Euzko Ikastola Batzak hala eskatu, eta Vallejok, auzo-eskoletako eredu gairatu nahian, eraikuntza guztiz arrazionalista diseinatu zuen, Europako joera berantiarrenak kontuan harturik. Baserriaren itxura emanez, egitura xumea zen, apaindurarik gabea, baina bere sinpletasunean ederra eta funtzionala. Eraikinak bi barrakoi zituen, bat neskatoentzat, eta bestea mutilentzat; eta aldamenean, estalitako gunek ireki bat. Ikurrinaren hiru koloreak nagusitzen ziren. Behea eta hormak egurrezkoak ziren, biak gorriak; teilatua, berriz, uralita zurizkoa, eta jolastokia berdea. Harresi batez inguratua, berdegune batek toki nahikoa uzten zien ikasleei, dantzak, kantak, gimnasia egiteko eta olatzeko. Ikasgela handiak ziren eta oso argitsuak. Leihoak, bestalde, handiak eta goitik beherako jogunedunak, ikasgela ondo aireztatzeko. Horrez gain, aire freskagarriak zeuden goitegiekin, eta berokuntzarako gas-instalazio aproposa. Komunak ere aproposak ziren. Kanpoan, sarrera nagusian, mastaren goialdean ikurrina jarrita egoten zen. Ikastolaren inaugurazio ofiziala 1933ko urtarrilaren 15ean egin zen.



7. Irudia: Bilboko Errotaxueta ikastola (Arg: Informe 1933).

Errotaxuetan hiru gradutan ematen ziren eskolak, 3-5 urte, 5-9 urte eta 9-12 urte bitartean. Guztira bost gela zeuden: bi haur txikientzat, beste bi neskentzat eta beste bat mutikoentzat. 1935-36 ikasturtean 204 ikasle zeuden, bost andereñoen ardurapean. Andereñoak Maria Arrien, Felisa Belasko, Rosario Etxarri (gero, honen ordez Maria Luisa Arrillaga), Koldobike Natxitube eta Rosario Olazabal.

Bilboko Errotaxuetako eskolako adibidea har dezakegu ikasleek erabiltzen zituzten ikasgela, altzari, mahaien antolaketa eta abar, ikastolan bideratu nahi zen pedagogiaren nolakotasuna adierazteko. Mahaiaren antolaketa baserriko sukaldeetan erabiltzen zen modukoa zen, mahaiak zein aulkiak arinak, mugitzekoak eta egoera berrietara erraz egokitzekoak. Horrelako antolaketak talde-lana ahalbidetzen zuen, esperimentaziorako eta ikasleen eztabaidak eta hartu-emanak bideratzeko aukera eskainiz. Esan liteke antolamendu aproposena zela, sustatu nahi zen metodologia aktiboari begira. Irakaslea ere erraz mugitzekean mahaien artean, bai ikasleek egiten zutena behatzeko bai ikasleek eurengandik hurbil edukitzeko. Irakasleak ez zuten oholtzarik. Ez zegoen apaindurarik: gurutzeta, Sabino Aranaren argazkia, paperontzia eta armairu bat. Irakaslearen mahaia tiradera zen, paperak gordetzeko, batik bat. Gregorio Arrienek (1983: 46) aipatzen du ohikoa zen materiala: Europako eta Euskadiko mapak, mapamundia, Amerikako eta Afrikako mapak, munduko esfera, sistema metrikoa erakusteko neurriak, eta zenbait marrazketa-koaderno irudi-orriz beterik.



8. Irudia: Bilboko Errotaxueta ikastolako jolastokia (Arg: Informe, 1933)

Euzko Ikastola Batzak zituen printzipioak honako hauek ziren: 1) Eskolak aktiboa izan behar du; ikaslearen jarduna ezinbestekoa da, baita haren autonomia ere. 2) Ikasleak eguneroko bizimoduari aurre

egiten ikasi behar dio. 3) Beraz, edukiak eta jarduerak aukeratu eta antolatzerakoan, funtsezkoak dira ikaslearen interesak. 4) Irakaslearen zeregina garrantzitsua denez, haren prestakuntzak hobea izan behar du. Ulertu behar da, horregatik, irakasleen prestakuntzari ematen zitzaion garrantzia.

Barne-ikastaroak antolatu zituzten oinarrizko prestakuntza emateko, eta aurkeztu ziren hirurogei ingurutik hogeit hamar maistra aukeratu ziren Euzko Ikazkuntzako lehen irakasleak izateko. Ikastaro horietan prestakuntza zabala ematen zen, Euskal Herriko gizartearen ezagutza fisiko-natural eta soziala, gure historia eta folklorea, euskararen ingurukoa eta erlijioarena. Atal berezi batean, metodologia pedagogikoari heltzen zitzaion, batez ere, Haur Hezkuntzara zuzendua. Ikastaroak eman zituzten artean Julene Azpeitia izan zen emakume bakarra, EABko kide izateaz gain, pedagogia-alorrean eskarmentu handikoa.

Formazio ikastaroak antolatzeko Euzko Ikazkuntzak hartu zuen ardura, eta udan, bai uztailean eta irailean ikastaroak ematen ziren irakasleak euskal gaietan sakontzeko. Aipagarriak dira 1931n, 1932an eta 1933an antolatu zirenak. Badakigu maistra eta maisu euskaltzale asko joan zirela Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Nafarroatik, batez ere. Ikastaroak prestakuntza ertainetik gorakoa zutenentzat izaten ziren, Euskal Herriko ezagutzaz sakoneko prestakuntza nahi zutenentzat. Horrez gain, aiposak ziren irakaskuntzan euskaraz lan egin nahi zutenentzat ere, euskarazko azterketara aurkezteko aukera baitzegoen, euskararen titulua lortzeko. Emakume Abertzale Batzako maistra asko, bestalde, *Euzko Ikazkuntzako* kideak ziren: Jesusa Ibaseta, Rakel Alda, Adela Apraiz, Elbira Zipitria, Julene Azpeitia, Pilar Sansinenea, Julia Fernandez Zabaleta eta abar luzea. Bestalde, Bilboko EABko maistra asko sindikatu ziren ELA/SOVk 1931ko apirilean sortu zuen *Euzko Irakasle Bazkunan*. Elkarteak Bilkoko Posta kaleko 17, 3. pisuan zuen egoitza, sindikatoaren lokalean. Afiliatu kopurua 150 maisu-maistra ingurukoa zen, auzo-eskoletako, udal zein estatu eskoletako irakasleaz osatua. Kargu gorenean gizonaek egon arren, Bilboko EABko emakumeak ere zuzendaritzan agertzen dira (Ugalde, 1993: 444). Adibidez: 1932 eta 1933 urteetan, M^a Angeles Endeiza, M^a Angeles Iturrate eta Purificación Mandiola (kontable, bokala, eta diruziana, hurrunez hurren); 1933an, Sorne Unzueta (presidenteordea), eta Adela Apraiz (bokala). Esan liteke, euskal irakaslearen profilar kezka handia zegoela, eta hezkuntza ofizialaren esparru alternatibo bat gauzatu nahian, ikastaroen bidez bermatzen zela irakasle ogibidearen habitusaren transmisioa.



9. Irudia: Errotatueta ikastolako gela. (Arg: Informe, 1933).

Ulergarria da, euzko ikastoletan garatzen zen giro pedagogiko berrian testuliburuak erabiltzearen aldeko joerak egotea, eta baita kontrakoak ere. Arazoa ez zen soilik edukia edo ikasmateriala, baizik eta haien aurretik, metodoan zegoen arazoa. Hautaketa egina zegoen ordurako: metodo globalizatuak erabiliz, horietan uztartu behar ziren testuliburu-tako edukiak, ez alderantziz. Euzko Ikastola eskola euskaldun alternatiboa sortzeko ordurako eskola ofiziala errotik iraultzea zekarren, zati handi batean, behintzat; eskola horretan euskaraz eraiki behar bazen pedagogia berria —aktiboa, modernoa eta eragilea—, horretarako ikasmateriala ere sortu beharra zegoen. Baina ez hala nola! Euzko Ikastolen Batzak aurreko hamarkadan sortutako materialak eruz erabili arren, 1932tik 1937rako doan epealdian material berriak sortu zituen. Matematika lantzeko eta irakurtzen irakasteko eskasia ikusirik, bi liburu-egileri proposatu zitzairen horretan jardutea. Matematika-arloa prestatzeko, Jose Zabala-Arana Goirienea, «Txipi», nabarniztarra hautatu zen, eta irakurketa-liburuak egiteko, Julene Azpeitia «Arritokietara» zumaiarra.

Jose Zabala-Arana, oso gazte sartu zen klaretarren kongregazioan. Predikari eta idazle oparoak RIEV, Euskera, Ekin eta Euzkera aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak. Euskal hizkuntza eta erlijioa izan ziren haren obretako ardatz nagusi. Gramatika-liburuez gain, eskolarako testuliburuak idatzi zituen. 1931n; *Zenbakiztija: I mallea*, 1932an; *Zenbakiztija: II mallea*. -argitalpen datarik gabe-idatzi zituen. Arana-Zabalaren liburu guztietatik bi bakarrik argiratu ziren Euzko Ikastola Batzak aginduta. Bildumaren hirugarren zenbakia ez zen argiratu.

Bildumaren helburua zen adin bakoitzerako matematikaren oinarrizko edukiak lantzea, euskarazko lexikoa erabiliz eta modu arrazoizkoan antolatua, ordura arte egiten ez zena, hain zuzen ere. *Zenbakiztija: I mallea* Bilboko Verdes-Atxirikatarren Irarkolean argitaratu zen, Euzko Ikazkuntza Batzak ohikoa zuen telazko azal berdez, eta erdian Batzaren anagramaz. Lehen orrian datorrenez, 1932an idatzi zen «Arana-Goiti'tar Sabin'en gomutaz». Hurrengo orrialdean honela dakar: «*Zenbakiztija. Lenengo malea. «Nabariztara k» atondu eta Euzko-Ikastola-Batzak argitalduta*». Eskuliburu da, tamainaz txikia, 12,5 x 18,5 cm-koa eta 130 orrialdekoa. Albo bietatik idatzitako aparteko orri batean hitzen hiztegia agertzen da, gaztelaniazko hitzen parekoekin. Liburu irudi askorekin hornitua dago, haur euskaldunen errealitate hurbil, baina ez da aipatzen marrazkilaririk. Matematikako liburu klasikotzat har liteke, garaikoen

antzeria, baina didaktikoki ohikoa zena baino zainduagoa. Edukiak lantzeko erabiltzen diren asmakizun, buruketa eta horrelakoetan, haur euskaldunei zuzendua dagoela ikusten da, eta datozen adibideek, izenek... eta horrelakoek erakusten dute haur horientzat apropos eginga dagoela liburua. Euzko Ikastola Batzak argitaratu zuen matematika lantzeko bigarren liburua *Zenbakiztija: II mallea* da, baina ez da urterik aipatzen. Eskuliburua da, tamainaz txikia, bestearen antzekoa: 12,5 x 18,5 cm-koa eta luzeraz laburragoa, 111 orrialdekoa. Lehenaren kolore bereko azala du, ez da aipatzen irudigilearen izenik, eta sarrera berdina da. Liburuetako sarrera biek proposatzen zien irakasle erabiltzaileari testua egokien ikusten zuen eran erabiltzeko. Hala ere, liburua erabiliz gero, argiago azaltzen ziren oinarritzko ildo didaktikoen nondik norakoak, irakasleak hala erabiltzea egoki ikusiz gero.



10. irudia: *Zenbakiztija I* eta *II* liburuak

Ekarri berri diren horiez gain, aipagarria da Julene Azpeitia idazle eta pedagogoak 1932an idatzitako *Irakurri Matte*. Julene Azpeitiak, Donostian ikasi zituen irakasle-ikasketak, eta Bilbon, berriz, irakasle-ikasketen goi-maila. Bilbora ezkondu, eta Bizkaiko Aldundiko auzo-eskoletako oposaketetan lehena geratu, eta beste andereñoen ikuskari izendatu zuten. 1930eko hamarkadan, aholkularitza pedagogikoa eta prestakuntza-ikastaroak eskaini zituen Euzko Ikastola Batzan. Euzko Ikastola Batzak enkargu zion hiru liburuz osatutako bilduma prestatzea. Lehenengo alea baino ez zuen argitaratu. Bigarrena idatzi ere egin zuen, baina gerrak moztu zituen argitalpenaren kontu guztiak. Badirudi jatorrizkoa ere galdu egin zela. Julene Azpeitiak Montessori metodoak ezagutzen zituen, eta baita, zuzenean behatuta, Granadako «Ave Maria» eskoletako esperientzia pedagogikoak ere. Bazuen Europan irakaskuntza elebiduna helburutzat zuten esperientzia pedagogikoen berri, eta Bilboko Euskal Irakasleen Elkarteko partaide ere bazen, ekintzaile eraginkorrenetarikoa. Ovide Decroly belgiar psikologo eta hezitzailearen pedagogiaren jarraitzaile sutsua izan zen Julene Azpeitia, eta haren kontzeptualizazioarekin bat zetorren, hark esaten zuenean «haurra bizitzarako ikasten duela eta bizitzen den horretatik ikasten duela

bere bizitza indibidualerako zein gizarte bizitzarako», eta barneratze hori «ideia elkartuen» eta «interesguneen» bitartez gauzatzen dela esatean. Horregatik, Julenek haren «printzipio oro hartzaileak» hartu zituen, eta globalizazio printzipio hori gorde zuen berak idatzitako *Irakurri Matte*. Irakurgayak. Lenengo Inguraztija liburuan, non 40 orrialdetan, 14 gai jorratuz, haurren hezkuntza indibidual, sozial eta nazionalaren gaia lantzen baita. Liburuak hamalau irakurgai ditu joera moralista nagusi dela, baina edukietan sakonduz gero, aberria, erlijioa, elkartasuna, jakinduriaren garrantzia... eta abar agertzen dira, Emakume Abertzale Batzaren ideologia aberkoi eta erlijiosoa nagusi zela esan daiteke.


Euskaraz sortua dago liburua —azal berdeduna— eta egileak berak egin zuen gaztelaniazko bertsioa —azal gorriduna—. Azal biak dira Euzko Ikastola Batzak Arana-Zabalaren liburuetan erabiltako modukoak, baina handiagoak. Liburuak 17,5 x 19,5 cm ditu, ohiko eskola-liburuena baino handixeagoa. Irakurgaiak zailtasun-maila gorenean eginak zetozen, eta marrazki handiekin hornituak. Atzeko azalean aipatzen da marrazkiak Aranoa'tar J.M marrazkilariak eginak direla, Bilboko Verdes-Atxirikatarren Irarkolean argitaratua, hain zuzen ere.



11. irudia: *Irakurri Matte* liburuaren euskarazko eta gaztelaniazko aleak

Irakurketa-liburu hori egiterakoan Julenek arreta berezi jarri zuen irakurketa-idazketa metodoan. Bi gauzek kezkatzen zuten Julene: batetik, letraka esandako irakurketak; bestetik, euskaldunei erdaraz irakurtzen irakastearenak. Julenek luze idatzi zuen horri buruz Euskaltzaleen Biltzarrean idatzitako «Ume euskaldunai euskeraz idazten eta irakurtzen zelan irakatsi» artikuluan. Ovide Decroly hezitzaileari jarraituz, Azpeitiak (1962: 293) uste zuen irakurketaren hastapenak metodo ideo-bisualean oinarritu behar zirela. Irakurketa esaldika egin behar zen, ikasleak irakurtzen zuenaren zentzu osoa hartzeko. Julenek kritikatu egiten zuen euskaldunei erdaraz irakurtzen irakastea. Horrela jokatzean, irakurketa-metodo desegokia erabiltzen zen: irakurketaren erritmoagatik, tonuagatik eta abar. Ondorioz, irakurtzea arrotz gertatzen zitzairen haur euskaldunei eta gorrotatzera ere heldzen ziren. Julenek beharrezkoa ikusten zuen irakaskuntzatik bertatik haurrei euskaraz irakurtzen eta euskara maitatzen irakastea, eta haurren esku utzi zuen berak liburu horretan idazle gisa zuen bikaintasuna. *Irakurri Matte* liburuak, bestalde, lehen saria eskuratu zuen Bizkaiko Diputazioak pedagogia-alorrean 1925ean antolatu zuen lehiaketan. Joera bera erakutsi zuen geroago idatzi zituen haurrentzako idazlanetan. Horra hor *Euli baten edestia* ipuina, *Amandriaren altzoan* liburua, Goizeko Izarrak ipuina, *Auntza Baratzen* ipuina, *Umien Adizkia* kartila eta *Zuentzat* ipuin-liburua.

Julene Azpeitiak 1961ean argitaratutako 30 orrialdeko *Umien adizkia. I. Idaztija*, Bilboko Talleres Gráficos Ordorica moldiztegiaren argitaratu zuen, Maria Jesus Ibaseta eta Jose Maria Errazti bilbotar euskaltzale familiaren diru laguntzari esker.



12. Irudia: *Umien adizkia* silabarioaren azala

Azalean agertzen den etxaldea Olagane da, familia horrek Laudioko Galmaka auzoan eraiki zuena. Euren sortu zuten, 1960an bertako ikastola, titularitatea Maria Jesus Ibasetaren izenean jarrita. Haurrek irakurtzen ikasteko materiala behar zutela-eta, liburuak silabarioen itxura du. Edukiek gerra aurreko euskal nazionalismoaren balioetatik edaten zuten, irakurgaiaren gradualtasuna gordez. Bildumaren hurrengo idazkiak ez ziren argitaratu.

3.2.2. Hezkuntza informalean helduentzako formazioa

Bilboko EABk hezkuntza informalean lan handia egin zuen, gaztetxuekin zein helduekin. Helduei zuzendutako formazio ikastaroak Belostikaleko Ieko egoitzan ematen zituzten, Bidebarrieta, 14an Euzko Gazteriaren egoitzan, eta geroago Posta kalea, 14, 2. solairuan. EABren helburuekin bat zetozen formazioak eskaintzen zituzten (Larrañaga, 1978-II: 45-52).

Batetik, “Etxerako Eskola”tzat har zitekeena, hots, plantxa, joskintza (korte ta konfekzioa), eta sukaldaritzako eskolak ere antolatu zituzten. Plantxak eta joskintzak garrantzi handia zuen Bilboko EABn, banderak, ikurrinak, eta dantzarien arropak, tonbolatako panpinak eta kanastilak... emakumeek egiten baitzituzten. Joskintzan 53 emakume ikaslek hartu zuten parte, Juli Bilbao eta Josefina Gerrikaetxebarria irakasleekin. Horrez gain, erizaintza eta puerikultura kurtsuak antolatu ziren, emakume afiliatuek ondoen laguntzeko beharrian soziala zuten familiei. 1935eko otsailean bi kurtsu erizaintzat, eta beste bi puerikulture-erizaintzat antolatu ziren (Ormaza, Iburguen eta Gondra osagileek emanak). Urte bereko urrian, erizaintzako beste bi kurtsu antolatu ziren (16 emakume ikasle, Ormaza eta Iburguen osagileekin). Erizaintza ikastaroetan ikasten zutenek aukera zuten aurkezteko azterketa ofizialetara, ogibide horretan legalki lan egiteko. 1935ean, EABko 73 emakume bilbotarrekin erizaintza titulua, eta urrian zazpi lortu zuten puerikultura titulua, EABk antolatutako formazio ikastaroetan parte hartu ondoren. Emakumeak Josefina Arana, Miren Arana, Jesusa Eiga, Soledad Gaztelu-iturri, Maria Luisa Goikoetxea, Maria Teresa Kalzedo eta Maria Dolores Korta (Ugalde, 1997:554). Sukaldaritzako ikastaroek, bestalde, arrakasta handia izan zuten. Ikastaroan 62 emakume ikaslek hartu zuten parte, Jesusa Argaluz eta Josefina Garate irakasleekin, Ponciano Solozabalaren laguntzaz. Janaritzak zuen garrantzia nabarmendu daikete emakumeek janarigintzaz bi liburu argitaratu baitzituzten. Lehen, Julene Azpeitiak 1922an argitaratu zuen “Osasuna, merketza ta yanaritzaz”, 54 orriko liburua, non janariaren osasun eta ekonomiaren ikuspuntuetatik aztertzen diren. Osasunari lehen 17 orri eskaintzen zaizkio eta ekonomiari, berriz, azken hirurak. Bigarrena, berriz, hamar urte geroago, 1932-33 ikasturteko apunteak biltzen dituen 72. orriko “Lecciones prácticas de cocina” liburua da, Emakume Abertzale Batzak, berak,

1933an argiratu, eta 2 pezetatan salgai jarri zuena. Liburuan 15 bazkari eta afari xume aurkezten dira, beste 15 haragi-uzterako bazkari, eta 10 bat, bazkari berezietarako.



13. Irudia: Ezkerrekoa 1922 ingurukoa, eta eskumakoa 1933koa

Bestetik, oinarrizko formazio arrunta izan zitekeena: solfeo, piano eta euskal kantak (Pele Goiri eta Elisa Pastor pianojoleek emanak). Euskara klaseak, 1. eta 2. mailakoak Libe Barrena, Miren Alberdi, Koldobike Natxitube eta «Lauxeta» irakasleek ematen zituzten; Francisco Belaustegi eta Dalmau gizonezkoek ere klasea eman zuten (Ugalde, 1997:554). Euskarazko klaseetan guztira 296 ikaslek parte hartu zuten. Hizlariak eta mitinlariak prestatzeko oratoria klaseak (Sorne Unzuetak eta Martin Arzubiaga abadeak emanda), marrazketa (Maria Bianak 11 ikasleei emana), ingelesa (Cristina de la Sotak ematen zuena), kontabilitatea 1. eta 2. mailak (Begoña Agirrek eta Esperanza Zabalak, 21 emakume ikasleei emanak), takigrafia, 1. eta 2. mailak (24 emakume ikasle, Maria Garitazelaia, Paulina Regina Olea eta Primitiva Arrien irakasleekin), eta mekanografia klaseak. Horrez gain, hitzaldi kulturalak eskaintzen ziren. 1931an hitzaldi sorta eskaini zen urte osoan zehar. Hizlariak honako hauek ziren: Karmele Errazti, Telesforo Monzon, Sorne Unzueta, Manuel Sota, Mercedes Kareaga, Jesus Zabala, Miren Lazkano, J. Antonio Agirre, Jose Maria Izaurieta eta Elias Gallastegi.

3.3. EABren eragina ongintzan

EABko emakume asko erlijioarekiko grinak bultzatuta ongintzan aritu ziren, gizarte-gaiak eta hezkuntza baitziren haren bizitzaren ardatz nagusiak. Emakume horientzat funtsezkoa zen premia zutenekiko ardua eta kezka izatea, hala beharturik zegoenaren alde etengabe lan egitea. Batzuetan aldiko harpidetza zabaltzen zuten kausa baten alde dirua batzeko (1933an Bermeon ito ziren arrantzaleen aldekoa, 35ean Mundakako arrantzaleen alde, adibidez). EABko

Bilboko egoitzan “gabon solidarioa” prestatzen zuten. Jaialdi batean jasotako diruaz gain, jaki-saskiak, kanastilla, arropak eta umeentzako jostailuak banatzen zituzten beharrezana zuten familien artean. Antzeko joera errepikatu zuten Ameriketako EABek gerran erbesteturiko familiei laguntzeko.

Horrez gain, Posta kaleko egoitzan dohaneko Osakolea edo dispensarioa antolatu zuten. Osakolea ondo hornituta zegoen, garbitasunez eta beharrezko baliabide materialekin. Osagilea eta botikak dohainik ziren. Bertara hurbiltzen ez ziren kasuetan, etxeetara bisitak eginez osatzen zen. Langintza honen zama ulertzeko esan liteke 1935eko maiatza-abendu bitartean 659 injekzio jarri zirela, horietarik 496 etxeetan, eta 527 botika banatu zirela. Gerra hasi zenean, Euzko-Gexosanak osatu zen, gudariantzako arropa, mantak, janaria, botikak, osasun zerbitzuak, gudariantzako jostintza tailerrak antolatuz, zein espexetan kartzelaturik zeuden jeltzaleei laguntzeko.



14. Irudia: Ezkerretik hasita Rosario Ajuriagerra, Mari Iturriaga eta Juliana Mujika (Arg. Mujika senidea)

EABko zuzendaritzak ongintzan zegoen beharrezana ikusirik, hiru emakume bekatu zituen Gizarte Laguntzaile ikasketak Frantzia eta Belgikan egiteko, Teresa Azkuek, EABko presidenteak, gure artean horrelako Eskola bat sortzea nahi zuelako. Bekadunak Rosario Ajuriagerra Otxandiano, Mari Iturriaga Dañobeitia eta Juliana Mujika Agirrezabal ziren eta ikasketak Lovainan burutu zituzten bikaintasunez burutu ere. Juliana Mujika, esaterako, ikasi zuen Eskola berean irakasle izendatu zuten. Ikasketak bukatu zituztenean, 1936ko abenduan, Parisen aurkeztu zuten ikasketak guztien txostena, zehaztasun handiz erakutsiz ikasi zutena eta ikas-praktiketan ikusitakoa. Gerrak moztu zuen horrelako Eskola bat sortzeko aukera.

4. Ondorioak

EABren garapena aztertzen badugu, Bilbon 1922an sortu zuen epealdia laburra baina oso kementsua izan zela ikusten dugu. Urte beteko epean, taldea sortu eta

eratu zuten, eta ekintza gehienak, Bilboko egoitzaren inguruan antolatu ziren. Primo de Riveraren diktaduraren eraginez hamar urtez publikoki agertu ezin zuten, isilpeko ekintzaren bidez egin zuten lan emakumeek. II. Errepublikak emakumeen aldeko haize berriak ekarri zituen, eta 1931an EAB indarberitu egin zen. Sei urteko epealdi hau emankorra da, eta egitura trinko batez taldearen hedapenari bidea eman zitzaion. Batetik, Bilbon taldea sendotu egin zelako, eta bestetik, emakumeen ekimen gehienak Hego Euskal Herri osora zabaldu zituztelako. Horrela, Bilboko egoitza bietaz gain, Bizkaiko, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako herrialde handienetan egoitzak zabaldu ziren. Ipar Euskal Herriaren kasuan, berriaz, «Begiraleak» izenez osatu zen honen antzeko emakume abertzale taldea, 1934an Madalen Jauregiberri andrea lehendakari hautatu zutelarik. Sasoi honetan EABren loraldia eman zen, eta EABren egitasmoen antolaketak sabaia jo zuen. Baina, Espainiako gerra zibilarekin batera, afiliatuen erbestealdiaren urte ilun eta mingotsak hasi ziren.


Frankok Bilbo hartu zuenean, 1937ko udaldiaren hasieran, EABk agerpen publikoari bukaera eman behar izan zion. EABko afiliatu askok ihes egin behar izan zuten, eta erbestean sufrikarioa, gosea, identitate faltua eta familien sakabanaketa ezagutu zituzten. EABko zuzendaritzakoek, alde egin behar izan zuten; gehienak Iparraldera joan ziren. Erbeste gordinean Bartzelonan zuten egoitza, Ronda de Cataluña kalean, eta 1937ko azaroaren 22an lehen bilera antolatu zuten Kontxa Azaola bilbotarra buru zelarik, eta Maria Teresa Kalzedo idazkari. Bartzelonan EAB zegoen bitartean, zuzendaritza 1937ko abenduaren 10ean berriztu zuten, eta presidentia karguan Kontxa Azaolak jarraitu zuen. EABaren egitasmoak, maila apalagoan, Iparraldean jarraitu zuen Kontxa Azaolaren eskutik. Donibane Lohitzunen zegoen egoitzan, Kontxak piztuta eduki zuen EABren suzia, Julitxo Laskibar tolosarraren laguntzari esker. Ameriketako EABko egoitzetan, tonbola, zozketa zein diru batzuetan lortzen zen dirua, Julitxok hartu eta banatu egiten zuen beharrezana zuten euskal errefuxiatuen artean, botika eta arrokekin batera. Emakume bi horiek zubi lana egin zuten Ameriketako eta Euskal Herriko emakume afiliatuen artean, eta haiei esker EABren dokumentazio ofizial asko, erre edo galdu ez dena, gorde egin da gaur arte.

15. Irudia: EABren garapena

Zuzendaritzaz gainera, afiliatu asko sakabanatu ziren Iparraldean, Frantziara, Belgikara zein Hego Amerikan. Bai Bilboko ikastoletan egondako andereñoek zein besteetako gehienek haur erbesteratuei lagundu zieten. Andereño batzuk Ingalaterrara joan ziren, beste batzuk Belgikara, Frantziara zein Iparraldeko haur kolonietara. Andereño gehienak EABko afiliatuak ziren eta euren esku gelditu zen haurren ardura, euren familietatik urrun zeuden bitartean. 1940ko udaldian, Frantziara Bigarren mundu gerra hasi zenean, afiliatu askok alde egin zuten, epe luzerako, Venezuela, Mexiko, Argentina, Uruguai eta beste herrialde batzuetara, bakar-bakarrik, euren senideekin edo beste ezagun batzuekin.

Iparraldera joandako batzuk, poliki-poliki itzultzen hasi ziren, baina zirkulu ezagunetan izan ezik, gutxi zekiten emakume horiek zer egin zuten EABko afiliatu gisa. Erbestean andereño izandako batzuk Bilboko zein Donostiako etxe-eskolen mugimendua abiatu zuten (Agurtzane Olazabal, Bilbon; Elbira Zipitria, Donostian), edo etxe partikularretan frantses, ingelesa zein euskarazko irakasle gisa aritu ziren (Julia Egia, Sorne Unzueta, Koldobike Natxitube), zeren maistrei eskolak emateko baimena kendu baitzieten. Adibidez, Paulina Ramosi Bilboko udal eskoletan zuen lanpostura bueltatzeko baimenik ez zioten eman, behin eta berriz eskatu arren; Koldobike Natxituberri eta Sorne Unzueta eskolak emateko baimena kendu zieten. Maria Jesus Ibasetari eta Julene Azpeitiari luzaroan ez zieten baimenik eman. Beste batzuek, familia ondasun guztiak galdu zituzten, eta beldurrak eraginda, isilpeko anonimatoan bizi ziren.

Amaitzeko, ondorio gisa esan liteke Bilbon sortutako EABk bide luzea eta emankorra izan zuela. Garaiko premiak eta agintari jeltzaleen beharrezan ezagutu eta lagunduz lan egin zuten EABko emakumeek. Euren aberrirentzat etxean zuen habia, baina politikagintza kontziente hura espazio publikora eramane zuten. Militantziaren eraketa sendo bati esker, solidaritate sareak eraikiz batera bizitza publikoan parte hartzeko bidea zabaldu zuten. Ahalegin handia egin zuten euren ahotsak eta pentsaera espazio publikora zabaltzen, euskara babestu eta irakasten, ikastetxe euskaldunen sarea antolatzen eta lanbiderako prestakuntza aldarrikatzen. EABn ibilitako emakumeek autonomia pertsonalean irabazitakoak maila sozial zein politikoan eragina izan zuten. Lorpen horiek, emakumeen maila indibidualean zein kolektiboan gauzatu ziren, eta horrela jokatuz, emakume askori autonomiarako bide berriak ireki zituzten. Haien ekintzei esker emakumeak bizitza publikoan bere tokia hartzen hasi ziren. Euskaldunontzat Emakume Abertzale Batzako ekintzaileek eredu eta sorburu dira XXI. mendean ere.



5. Oharra

Egileak UPV/EHUko GARAIAN ikertalde egonkortuko kideak dira, eta artikulua IT 911-16 lkerketa-proiektuan, eta “Hezkuntza, Kultura eta Gizartea” izeneko UFI 11/54an kokatzen da. Komunikazio erara 2016ko azaroaren 28an aurkeztu zen, Bilboko Bidebarrieta Kulturgunean egin zen XX *Symposiumean (Bilbori buruzko historia: Emakumeak Bilboren Historian)*.

6. Aipamenak

- Askoren Artean (1988). *Julene Azpeitia. Ehun urte mugan (1888-1988)*. Bilbo: Zumaiaiko Udala.
- Arrien Berrojaechevarria, G. (1983). *La generación del exilio. Génesis de las escuelas Vascas y las Colonias Escolares (1932-1940)*. Bilbo: Onura.
- Azpeitia, J. (1962). Ume euskaldunai euskeraz idazten eta irakurtzen zelan irakatsi. *Euskera*, VII: 289-297.
- Bilbao, B., Ezkurdi, G., Perez, K., Chueca, J. (biltzaileak) (2012). *Emakumeak. Hitza eta Bizitza*. Bilbo: UPV/EHU eta BFA/DFB.
- Bilbao Bilbao, B., Perez Urraza, K. (2008). Euskal curriculum lehen eta orain, *Ikastaria, Cuadernos de Educación*, 16: 83-108.
- Estornés Zubizarreta, I. (1983). *La sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Euzko-Ikastola-Batza/ Federación de Escuelas Vascas (1933). *Informe de la gestión del primer ejercicio, presentado por la Junta de Gobierno de Euzko-Ikastola-Batza, 1932-33*. Bilbo: Talleres Gráficos Verdes-Achirica.
- Larrañaga, P. (1978). *Emakume Abertzale Batza. vol. I*. Donostia: Editorial Auñamendi Argitaletxea.
- Larrañaga, P. (1978). *Emakume Abertzale Batza. vol. II*. Donostia: Editorial Auñamendi Argitaletxea.
- Larrañaga, P. (1978). *Emakume Abertzale Batza. vol. III*. Donostia: Editorial Auñamendi Argitaletxea.
- Retolaza, I. (2012). Emakume Abertzale Batza eta emakume idazleak. In, Bilbao et al.: *Emakumeak. Hitza eta Bizitza*, Bilbo: UPV/EHU eta BFA/DFB, 103-119 or.
- Ugalde Solano, M. (1993). *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*. Bilbo: UPV/EHU – Emakunde.
- Urkiza, A. (2012). Emakumeak adimenean. In, Bilbao et al.: *Emakumeak. Hitza eta Bizitza*. Bilbo: UPV/EHU eta BFA/DFB, 79-101 or.
- Uruburu, L. (1997). *Emakume Abertzale Batza. Bidegileak bilduma (9)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitaletzen Zerbitzu Nagusia.